

1:08:59

2023-11-03 OSTIRALA 1.644. ZENBAKIA

TXINTXARRI ALDIZKARIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

txintxarri 30 urte!



Garbia eta arrakastatsua

Giro ederrean jokatu dute Lasarte-Oria Bai! 26. Kros Herrikoa 700 parte hartzaile baino gehiagok / 2-9

TXINTXARRI

guuk

MÁSMÓV!L

yoigo

pepephone

KOLORE GUZTIETAKO TARIFAK

ZATOZ GURE DENDA BERRIRA BISITAN:



FIRST
CONNECT

SAGARDOTEGI KALEA, 4. LASARTE-ORIA, GIPUZKOA | TELF: 611 81 98 51



Geltoki kaletik 700 partaide baino gehiago abiatu ziren. Ia denek osatu zuten 10 kilometroko ibilbidea. TXINTXARRI

Ortizek eta Oronozek irabazi dute krosa

Giro ederrean jokatu dute Lasarte-Oria Bai! 26. Kros Herrikoa rollerrek, lasterkariak eta ipar martxalariak. Helduen ostean gaztetxoek txanda izan da; 800 ume eta nerabek parte hartu dute 21. Korrika Festan. Boluntarioak omendu dituzte

Txintxarri

Urteak joan urteak etorri, krosak bere esentzia mantentzen jarraitzen du, nahiz eta pixkanaka (normala den bezala; bizitza) belaunaldiak aldatzen joan. Horren adibide, eskobaren kuadrilla. Urriaren 29an lasterka egin zuten guztiak dira talde horri ekin ziotenen seme-alabak. Geltoki kaleko helmugara iritsi zi-

renean erratza pasatzen hasi dira, ez 10 kilometroak egin izana ospatzeko, baizik eta hilaren 30eko greba feminista orokorren muinari keinu bat egiteko, zaintza lanena alegia. Zeregin horiek emakumeenak bakarrik ez direla islatu zuten.

10:20ak izango ziren rollerrak irteteko prestatzen ari zirenean eta euri tanta batzuk erortzen hasi

zenez. Zorionez, eguraldiak eutsi zion eta hiru diziplinetako partaideek (patinatzaileak, lasterkariak eta ipar martxalariak) arazorik gabe burutu ahal izan zuten 10 eta 5 kilometroko ibilbidea, hurrenez hurren, goiz-goizetik boluntarioek egindako lan izugarriari esker. Helmugan azkarrenak Ximon Villalobos, Amale Mujica (rollerrak biak), Ander

"Errepikatze moduko lasterketa da"

ENARA ORONOZ LASTERKARI GARAILEA

Enara Oronoz iruñearrak lehen aldiz egin du krosa. Nafarroako lasterketetan eta mendi duatloietan ibilia asteburu pasa etorri da Lasarte-Oria aldera eta kroseez izena eman du.

Giroak harritu duela aipatu du nafarrak: "Giroa izugarria izan da. Ez nuen uste hainbesteko jenderik egongo zenik animatzen eta asko gustatu zait".

Kroseez ibilbidearen gaineko iritzia ere eman du: "Ibilbide polita, entretenigarria da. Ez da oso gogorra, baina aldapa pare bat ditu zailtzen dutena. Lehen aldia izanik ezin dut bide aldaketari buruz eser esan, baina nabarmendu behar dut giroa izugarria izan dela".

Ornoz ez da ohikoa gure inguruko lasterketetan. Hala



TXINTXARRI

ere, Lasarte-Oria Bai! kroseez parte hartzea erabaki zuen: "Nafarroako probetan lehiatzen naiz nagusiki. Lagun batzuk gonbidatu zidaten asteburu pasa egitera eta kroseez parte hartzea animatu naiz. Errepikatze moduko lasterketa dela ikusi dut".

Ortiz (Soinketa irakasten du Oriarte Landaberri institutuan), Enara Oronoz (lasterkariak biak), Axier Baro eta Manoli Zumeta (ipar martxalariak biak) izan ziren. Sei horiez gain beste 750 pertsona iritsi ziren Geltoki kalera eta gogotik ospatu zuten askok.

Festa jendetsua

Helduen lasterketa eta sari banaketa amaitu ostean, Geltoki kalean barrena arineketan egin zuten 800 gaztetxo inguruk, haur zein nerabe. Harrobia indartsu datorrela erakutsi zuten beste

behin, adinkara egindako lasterketa jendetsuetan. Errazago edo kostata, denek osatu zuten zegoen ibilbidea; batzuek eroria izan zuten, eta zapatila eskuan helmuga gurutzatu zuenik ere izan zen. Ugarienak, hala ere, aurpegi irribartsuak izan ziren.

BELAUNALDI ALDAKETA EGIN DUTE ESKOBAKO TALDEAN; SEME-ALABEK HARTU DUTE LEKUKOA



OKELA HARATEGIA (Lasarte - Oria)

URRIAK 28 - AZAROAK 11

Gure harategietan erosi eta irabazi doan baserriko arrautzak eta txistorra hilabetez!

🌐 harakinakgipuzkoa.eus 📷 @harakinakgipuzkoa

HARA
KINAK
GIPUZKOA
CARNI
CEROS

Euskaber
BASERRI EROK ARKAITZAK
HAYATA 1011 C/ARABIA

Atxa

GIPUZKOA
MERKATARIAK
FEDERACIÓN

Diruz laguntzen du:

Euskadi, agurtzen, hain onak
BERNARDINERRETA GOBIERNO VASCO

"Oso gustura nago egindako lasterketarekin"

ANDER ORTIZ LASTERKARI GARAILEA

Ander Ortiz Tolosa CF taldean gazteen entrenatzaile da eta herriko Oriarte Institutuko irakasle ere bai. Aspaldi ez zuela krosa egiten, baina aurten Lasarte-Oriako ikastetxeko irakasle dela baliatuz proba egitea erabaki du: "Aurten guztiak koadratu du proban parte hartu ahal izateko. Hemen irakasle izatea egokitu zait eta parte hartzeko engainatu nindutela esan daiteke. Entrenatzen ongi nengoen eta baiezkoa eman nuen".

Tolosarrak lasterketaren nondik norakoak eskaini ditu: "Sentsazio oso onak izan ditut hasieratik. Hiruko taldetxo bat egin dugu hasieratik eta kontrolatzen nindoan. Lau eta bosgarren kilometroen artean nahi gabe atzean uzten nituela konturatu naiz eta nire erritmoan jarraitu dut helmugara arte. Oso gustura nago".



TXINTXARRI

Ortiz ere ez da ohikoa errepideko lasterketetan: "Ez naiz horrelako lasterketetan parte hartzekoa. Entrenatzailea naiz eta gazteekin egiten dut lan. Haiekin entrenatzen jarri naiz forman. Aurten lortutakoarekin asmoa dut krosetan edo pistan lehiatzekoa".

"Hurrengo urtean beste bati utziko diot lehen postua"

MANOLI ZUMETA IPAR MARTXALARI GARAILEA

Manoli Zumeta Ostadar Ipar Martxa taldeko kidea dugu. Lehen ipar marxa lasterketatik parte hartu du krosetan eta, aurten, azkenean, garaikurra lortu du: "Pozarren nago. Kristoren ilusioa egin dit lehena izateak. Honen atzetik nebilen, txoko bat nuen etxean aspaldi txapel honetzako egina eta azkenean lortu dut. Hurrengo urtean beste bati utziko diot lehen postua".

Aurten parte hartzaile gutxiago izan direla nabarmendu du hermaniarrek: "Gironako lagunak ez dira etorri eta aurten gure arteko lehia izan da. Hori nabaritu da".

Zumetak beharren arabera bakarka eta taldean entrenatzen duela aipatu digu: "Neure kabuz eta Ostadarreko taldearekin,



TXINTXARRI

Rosa Ormazabelekin ibiltzen naiz prestatzen. Toki batzuk badauzkat entrenatzeko eta hor nabil, batetik bestera. Gauza teknikoak lantzeko eta ikasteko, Rosarekin egiten ditut. Garaipen honen zati bat berea da eta ea zerbait ematen diodan ordainetan".



TXINTXARRI

"Ibilbidea eta giroa oso politak dira"

AXIER BARO
IPAR MARTXALARI GARAILEA

Axier Baro umietarrak bigarren urtea du ipar marxako lehiaketan parte hartzen duena. Duela hiru urte hasi zen ipar marxa egiten eta garaipena erdietsi du aurten krosetan. Bere esperientzia partekatu du gurekin: "Hasieratik bakarrik joan naiz. Nire erritmoa mantendu dut eta helmugara ere bakarrik iritsi naiz."

Lasterketako ibilbidea eta giroa ere nabarmendu ditu umietarrak: "laz etorri nintzen lehenengoz. Ibilbidea oso polita da eta eta horregatik errepikatu dut aurten. Giroa ere ederra da. Azken zuzengunean jende asko dago animatzen eta hori eskertzekoa da".

Dulea hiru urte eman zituen lehen pausoak ipar marxan eta bere kabuz ibiltzen da: "Lagun batekin hasi nintzen eta pixkanaka-pixkanaka joan naiz ikasten. Bakarka entrenatzen dut, ez naiz inongo taldeko kide".

"Gustura etortzen naiz krosetan parte hartzera; giroa ezin hobea da"

AMALE MUJICA PATINATZAILE GARAILEA

Amale Mujica donostiarrak podiumeko lehen postua errepikatu du. Bere mailako lehen jarri da hasieratik eta ez du aurkaririk izan. Lasterketaren nondik norakoak azaldu ditu: "Aurten askoz hobeto ibili naiz eta gustura egin dut proba. Ez dut lehia handirik izan.

Hasieratik jarri naiz nire mailako buru eta amaiera arte mantentzea lortu dut".

Lasarte-Oria Bai! krosa gustuko duen lasterketa dela nabarmendu du Mujicak: "Gustura nator bertan parte hartzera. Etxe ondoan dut. Eta giroa ezin hobea da".

Aurten ibilbide aldaketak zenbait arazo ere sortu dizkiela aipatu du patinatzaileak: "Ibilbidea aldatu da eta nabari izan dugu. Pixka bat aldrebestu da eta zaildu da. Errepidea ez zegoen egoera onean eta horrek zaildu du".

Patinatzaileek, korrikalarien antzera, Behobia-Donostia lasterketarekin amaitzen dutela adierazi du: "Lasterketa honen ostean, denboraldia amaitzeko gutxi falta zaigu. Behobia-



TXINTXARRI

Donostia dut orain buruan. Hala ere, Frantzia beste bat egingo dut ziurrenik".

26 **LASARTE-ORIA BAI!!**
Krosarekin bat!

**Carrefour
express**

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



TXINTXARRI

"Berezia da etxeko lasterketa"

XIMON VILLALOBOS
PATINATZAILA GARAILEA

Ximon Villalobos herritarak bigarren urtea du patinatzailean podiumeko maila gorenean. "Oso gustura egin dut krosa. Berezia da, etxeko lasterketa da".

Aurten lehia bizia izan du bere taldekide Aitor Vacasekin: "Hasieran Aitorrek eta biok aldapa beheran jo dugu ihesaldia eta helmugara arte elkarrekin joan gara. Asko kostatu zait, baina helmugan aurreratzea lortu dut".

Ibilbidearen gainean ere bere iritzia eman du: "Ibilbidea gogorra da. Tentsio handiarekin zoaz eta asfaltoz ere ez dago ondo ibilbide guztian. Susto pare bat izan ditugu kotxe batzuekin eta leku esturen batean, baina, oro har, gustura aritu naiz".

Denboraldia luzeari amaiera emateko gogoz dago herritarra: "Denboraldia luzea egiten ari zaigu. Orain Behobia-Donostia falta da".



TXINTXARRI

"Helburua, hasieratik, podiuma zen"

JON PRESA L-OKO
LASTERKARI GARAILEA

"Oso berezia da lasterketa; urteko egutegian, egin beharreko gisa markatzen dudak bakarra. Garrantzi handia du, alde batetik herrian bertan egiten delako, eta, bestalde, txikitatik parte hartu izan dudalako.

Prestaketa aldetik, ez dut krosa bereziki prestatu; Behobia-Donostia lasterketarako egiten ari naizenaren parte izan da, eta horren eraginez, freskotasun falta nabaritu dut krosean zehar. Hasieratik jarrera izan zen tira egitea, gorputzak nola erantzuten zuen ikusteko.

Helburua podiuma zen. Hortaz, oraingoan, xedea lortuta eta marka hobetuta, oso pozik. Baina pena txiki batekin ere bai, izan ere hasieratik hain fuerte hasi izan ez banintz, agian amaieran bigarren postua borrokatzeko indar gehiago izango nukeen".



TXINTXARRI

"Sorpresa izan da; poza sentitu dut"

AMAIA IRURTIA L-OKO
LASTERKARI GARAILEA

"Urtean zehar aritzen naiz korrika, bereziki, neguan mendian ibiltzea gustuko dudalako eta pixka bat sasoi mantentzeko. Nire bikotea lasarteoriatarra da eta ni, izatez Añorgarra naizen arren, Lasarte-Orian erroldatuta nago eta bertan bizi naiz. Bera urte askotan atera da krosean lasterka egiten, eta aspaldidanik zirrikatu nau, esanaz, herrian bizita, bizitzan behin behintzat parte hartu behar nuela; irailean, erabaki genuen elkarrekin aterako ginela.

Erronka gisa jarri genuen 4.30etik jaitea. Berak denbora hori aise egiten du, eta nire ondoan egin zuen lasterketa guztia, animoak ematen eta lortu genuen. Sorpresa izan dena da Lasarte-Orian erroldatutakoa artean helmugaratzen lehena egin izana. Poza ere sentitu dut".



TXINTXARRI

"Giroa, beti bezala, bikaina"

KEPA REZABAL L-OKO
IPAR MARTXALARI GARAILEA

"Egia esan, ez nuen krosean parte hartzeko asmorik, baizik eta antolaketa lanetan ibili direnei laguntzeko. Azkenean, Rosak [Ormazabal] animatuta erabaki nuen izena ematea.

Herrian giro polita sortzen den egun bat da, eta, nola edo ala beti izan dut parte hartzeko gogoia, eta ahal izan dudanero hala egin dut. Gehienetan antolakuntzakoei laguntzen, baina lasterka egin nuen behin, eta ipar martxalari gisa, aurtengoa bigarren aldia izan da.

Parte hartzea zen helburua, baina, behin lehian zaudela, ahalik eta ondoen egitea nahi izaten denez, erronka bezala jarri nuen Manoli Zumetarengandik (taldekide azkarrena) ahalik eta gertuen amaitzea, bera begi bistatik ez galtzea. Eta hala izan zenez, helburua beteta. Ondo pasa nuen noski; giroa ere beti lez, bikaina".



TXINTXARRI

"Aurten barrutik bizitu dut krosa"

MARI JOSE MUGIKA L-OKO
IPAR MARTXALARI GARAILEA

"26 urte baino gehiagoz Lasarte-Orian bizi den añogatarra naiz. Iaz, Euskararen Maratoian antolatuta zen ipar marxako ekitaldian parte hartu nuen eta gutxira, Ostadarren, beste ikastaro bat egin nuen. Orduan "datorren urtean nik ere parte har dezaket" pentsatu nuen, eta halaxe izan da. Esperientzia polita izan da eta ibilbidea ere tamainakoa da.

Urtero joaten gara krosa ikustera eta aspaldian ikusi gabeko jendea topatzen nuen. Aurten ezberdina izan da; barrutik bizi izan dut, baina konturatu naiz jende hori ikusi gabe geratu naizela. Bizitzan, liburu bat idatzi, zuhaitz bat landatu eta hurrengo urtean erabaki behar dela esaten den bezala, herrian bizitz gero, eta aukera izanez gero, egin beharreko zerbait bezala sentitzen nuen eta hori behintzat, egin dut".

SALGAI:



Jalgi tabernan, Ttakuneko bulegoan eta sarean labur.eus/aterkiak



10€
aterki 1

16€
2 aterki



aterkiak

Euskararen aterpe!!

txintxarri

Boluntarioen lana partaideek borobildu dute

Kirolaren festa, arrakastatsua

Urtero moduan, irudi eta une gogoangarri utzi dituzte Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak eta Korrika Festak, eta baita giro ederra sortu ere herrian. Aurtengo omenduek, boluntarioek, egindako lan eskerga milatik gora parte hartzailek borobildu zuten urriaren 29an: ibilbidea prestatu eta zaindu, fruta moztu, ura banatu, emaitzak eta denborak bildu lan informatikoaren bidez, partaideen aurrean txistua jo eta dantzatu, proba aurkeztu, eta abar. Txingurri txiki askoren ahalegin eta izerdiak bilakatu du handi kirol proba hori, gure herriko festa erraldoi bilakatzeraino.

Aurtengo 26. aldiaren atzetik beste askoz gehiago etor daitezten, ezinbestekoa izango da belaunaldi berrien ekarpena, apurka-apurka. Horren keinu adierazgarrietako bat eskobakoek taldean ikusi dugu, izan ere, ekimen sinboliko eta polit horri ekin ziotenen seme-alabek hartu dute gurasoen erreleboa eta lehen aldiz kide guztiak izan dira labealdi berri horretakoak. Horra hor krosaren xarma: urteak joan eta etorri, herritarrek joan eta etorri, esentzia bera mantentzen du. Herrikoa eta herritarrena da, herritik eta herriarentzat antolatutakoa.



Goizeko lehen zereginetako bat fruta mozteak izan zen. TXINTXARRI



Juanjo Erauskin, Ttakun KEren bulegoan, lan informatikoa egiten. TXINTXARRI



Geltoki kaleko irteera prestatu zuten zenbaiten artean. TXINTXARRI



Funtsezkoak izan ohi dira boluntarioak krosetako ibilbideko guneak zaintzeko. Irudian, Hipodromokoak. TXINTXARRI



Dantzari eta txistulariek aureskua eskaini zieten parte hartzaile guztiei. TXINTXARRI



Jagoba Mendizabalek (erdian) aurkeztu zituen krosa eta Korrika Festa. TXINTXARRI



Ostadar Ipar Martxa taldeko kideak, lasterketari ekiteko prest. TXINTXARRI



Zitzu bizian abiatu ziren rollerren proba jokatu zuten parte hartzaileak, Geltoki kaletik, 10:28an. TXINTXARRI



Jon Presa herritarra (gorriz), hasieratik ibili zen lehen postuetan. TXINTXARRI



Ipar martxalariak, Kale Nagusian. TXINTXARRI




Roller batzuk, Hipodromo etorbideko zubian sartzen. TXINTXARRI



Zaleen animoak jaso zituzten partaideek kros osoan zehar. TXINTXARRI



Urtero bezala, jendetza elkartu zen partaideen helmugaratzeko. TXINTXARRI



Bi patinatzaile hauek gogotik ospatu zuten proba amaitu izana. TXINTXARRI



Krosa hankutsik jokatu zuten lasterkariak, aldarrikapenak eta abereekin helmugaratutakoak ez dira falta izan aurten ere. TXINTXARRI



Iriondotarrak familian helmugaratu ziren. Atzean, partaide gehiago, pozik. TXINTXARRI



Fede Otaegi elkarrizketatzen. TXINTXARRI



Lasterkarien modalitateko saridunen talde argazkia. TXINTXARRI



Lasarte-Oria Bai! 26. Herri Krosaren zein 21. Korrika Festaren irudiak QRa eskaneatuz ikusi ahalko dituzue, TXINTXARRI-ren webgunean

ESKERTZA

Txintxarri
Urko Izagirreran familiaren partetik eskerrak eman nahi dizkiegu DYA, antolakuntza eta momentuan gure semea lagundu zuen jendeari, baita beregatik kezkatu zen jende guztiari ere.



Boluntarioek lehen metroak egin zituzten korrikalari gaztetxoekin. TXINTXARRI



Ikusmin handia sortu zuten Korrika Festako lasterketek. TXINTXARRI



Oztopoak oztopo, lasterketa bukatu nahi izan zuten, oinutsik izan arren. TXINTXARRI

EUSKAL JAIA '23

AZAROAK 11, LASARTE-ORIA

10:15 | **DIANA HERRIAN ZEHAR.**

10:15 | **EUSKAL AZOKA HERRIKO ARTISAUEN PRODUKTUAK ETA**
13:00 | **TTAKUNEN PROGRAMEN ESKAINTZA. OKENDO PLAZAN.**

12:00 | **PLAZA DANTZA MUXIKOAK/EUSKAL DANTZAK OKENDON**
PLAZA DANTZAKOEN ESKUTIK.

13:00 | **TTIRRIKI TTARRAKAKO TRIKITILARIEKIN KALEJIRA**
OKENDOTIK IRTENDA.

14:00 | **HERRI BAZKARIA OKENDO PLAZAN. JATEKOA NORBERAK**
ERAMANDA ETA EDARIA BERTAN ESKURAGARRI. AURRETIK IZENA
EMAN BEHARKO DA TTAKUNEN LEKUA ERRESERBATZEKO *

16:00 | **EUSKAL JANTZI TRADIZIONALEN DESFILEA OKENDO PLAZAN.**

17:30 | **BEA EGIZABAL UMORISTAREN BAKARRIZKETA.**
JALGI KAFE ANTZOKIAN

18:30 | **PINTXO POTEA JALGI KAFE ANTZOKIAN ETA OAINTXE IN DEU**
TXARANGAK GIROTUTA

ZATOZ
BASERRITAR
JANTZITA!

*Bazkarirako oharrak:

- 90 pertsonentzako mahaiak eta aukiak jarriko ditugu
- Lekua ziurtatzeko, aldeztu aurretik erreserba egin beharko da. Erreserba egiterakoan 3€ ordaindu beharko dira lekua ziurtatua izateko eta edaria bertan eskuragarri izateko (sagardoa, ardoa, ura).
- Erreserba egiten dutenek, edariek batera, bertan izango dituzte ekuragarri edalontziak, platerak, kubiertoak eta serbilletak

Eguraldi txarra eginez gero oriarte landaberrin ospatuko da

Tasa eta zergak %4,2 igoko dituzte 2024an

Ordenantza fiskalen proposamena onartu du udal korporazioak PSE-EE eta EAJren aldeko botoekin. Oposizioko alderdiek udal gobernuaren "gardentasun falta" eta egiteko modua kritikatu dute, emendakinak aurkezteko "denbora gutxi" izan dutelako

Txintxarri

Ezohiko saioa egin du udal korporazioak, datorren urterako ordenantza fiskalen proposamena hizpide hartuta. Udal gobernu osatzen duten alderdien (PSE-EE eta EAJ) botoekin onartu dute. Oposizioko alderdiek "kudeaketa txarra" izan dela adierazi, "gardentasuna" falta izan dela salatu eta emendakinak aurkezteko egun gutxi izan ditzutela kritikatu dute. Alegazioak egiteko epea irekita dago, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 egun igaro arte.

Tasa eta zergek %4,2ko igoera orokorra izango dute datorren urtean. Udal korporazioa berriki bildu da 2024ko ordenantza fiskalen proposamena onartu ala ez erabakitze eta aurrera egin du txostenak, PSE-EE eta EAJren aldeko botoekin. Aurka egin dute EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Puedek, eta abstenitu egin da PP. Agustín Valdivia alkateak jakinarazi

duenez, bi emendakin aurkeztu dituzte alderdiek: horietako bat, EAJk, udal euskaltegiaren tarifari buruzkoa, onartua izan dena; eta, bestea, ELOPek, alokairuko etxebizitzaren prezioa merketzearen gainekoa. Azken hori ez zen aurrera atera, bost aldeko boz eta 11 aurkako jaso zituelako.

Jarraian, ordenantzen txostenari buruz jardun dira, eztabaidarako tartea baliatuta horretarako. ELOP alderdiko bozeramaile Miguel Angel Tolosak jakinarazi du aurka bozkatea erabaki dutela, udal gobernuak ez duelako "gardentasunez" jokatu. Iritzi hori justifikatzeko zenbait arrazoi eman ditu, besteak beste, hiri hondakinen tasa %30 igotzea: "Iruditzen zaigu herritarrak informatu egin behar direla horrelako erabakiez eta ez duzue egin. Gainera, edukiontzi organikoak erabiltzeagatik orain arte jaso duten %20eko hobaria galduko dute, uste dugu ez da-

goela behar bezala justifikatu hori egitea". Horri erantzuteko alkateak hartu du hitza, azaltzeko hiri hondakinen kudeaketari buruzko lege organiko berriak erakundeak behartzen dituela 2026rako estaldura tasaren prezioa %100 igotzea, eta zerga horren garestitzea "progresiboa" izatea erabaki dutela.

PPko zinegotzi Manuel Palciok, Tolosak bezala, PSE-EEren eta EAJren "gardentasun falta" azpimarratu du. "Ostegun eguerdi batean aurkeztu zeniguten txostena eta 48 ordu eskas izan genituen emendakinak aurkezteko, hori ez da lan egiteko modua". Tasa eta zergak oro har %4,2 igotzea "gehiegi" iruditzen zaio. "Bizilagun dezentek hilabete amaierara iristeko arazoak ditzutela ikusita, guk tasa eta zergak izoztea proposatuko genuke".

Valdiviak itxi du hitzartzeen txanda, esateko bera dela lehe-



EH Bilduren udal taldeko zenbait kide, alderdiaren bulegoan. EH BILDU

"Kudeaketa txarra izan da"

Udal korporazioak PSE-EE eta EAJrekin aldeko botoekin onartu berri duen ordenantza fiskalen proposamenaren gaineko iritzia eman du EH Bilduk: "Udal gobernuaren kudeaketa txarra izan da".

Agerraldia egin du EH Bilduk, datorren urteko ordenantza fiskalen proposamenari buruz zer pentsatzen duen adierazteko. Alderdi horretako kideek azpimarratu dute ez datozela bat udal gobernuaren egiteko moduarekin: "Txostena batzordera eraman eta gero hiru aste izan beharko genituzke aztertu eta emendakinak aurkezteko, baina lau egun besterik ez zizkiguten eman, asteburua tartean". Bideanbar, igoera orokorra %4,2koa izatea "gehiegizkoa" iruditzen zaie. "Ez dio herritarrak bizitzen ari diren momentuari erantzuten eta ez da betetzen ari gehien duenak gehiago ordaintzearen irizpidea".

Hori esanda, koalizio subiranistako kideak kontziente dira baliabideak eta diru sarrerak behar dituela udalak "zerbitzu duinak" eman ahal izateko. Horregatik, udalaren egoera ekonomikoa aztertu ondok, tasa eta zergak %2,5 igotzea proposatu dute.

nengoa bat ez datorrena ordenantza fiskal hauen erritmoekin: "Ahal duguna egin dugu, kontuan izanda kontu hartzailek gabe

egon garela irail hasieratik urriaren 9ra arte, udalean oso garrantzitsua den denbora tarte batean".

Fermin Gonzalez Arregi herritarrak 100 urte bete ditu

Udal ordezkarien bisita jaso ostean, senideekin ospatu du lasarteoriatarak urtemuga berezi hori

Txintxarri

Gutxik esan dezakete urte gehiago daramatzatela jubilatuta lanean eman zituztenak baino. Fermin Gonzalez Arregi da horietako bat, 100 urte bete berri dituen herritarrak. Donostian jaioa, Fermin Kalbeton eta Hernani kaleetan igaro zituen haurtzaroko lehen urteak, Pasaiara lehenengo eta Zubietan dagoen Oianguren baserrira joan aurretik. Garai horretan ohikoa zen gisan, familia-koek erabaki zuten fraidea izango zela eta horretarako prestatzen hasi zen Arantzazun, Oñatin.

Bertako formakuntza amaitu ostean Foruara (Bizkaia) joan zen, baina utzi egin zuen bide hori.

Donostiako lanbide eskolan ikasi eta industria maisu titulua atera zuen, tartean soldaduska luze bat ere eginda, Loiolan. Oramil enpresan lanean hasi aurretik, lokal bat izan zuen Lasarten, irratiak egiteko nahiz konpontzeko. Ibilbide profesionalaren zati handiena, dena den, garai onenean zegoen Michelin enpresan gauzatu zuen, herriko lantegian, 1983. urtean erretiroa hartu zuen arte.



Ferminen senide eta zainzaileak eta udal ordezkariak, herritarraren etxean. I. FARRE

Mari Carmen Jauregirekin (2021ean hil zen emaztea) ezkondu eta lau seme-alaba izan ditu: Xabier, Koldo, Iñigo Jon eta Karmele. Gaur egun Lasarte-Orian bizi da, Sasoea auzoko Uzturre plazan, lasai ederrean. Leo, Lati eta Neiva zainzaileek laguntzen diote egunerokoan.

Gozozale amorratua izanik, Adarraga etxeko tartarekin ospatu du mendeurrena, merienda ederra eginda. Ondoren, argazki album bat hartu eta zenbait pasadizo gogoratu ditu senideekin batera, irudiak berrikusterakoan betaurrekoak jantzi beharrik gabe.

Denboran bidaia, dantzaren bidez, 'Nun batu dira gure ahotsak?' ikuskizunean



Ziomara Homaetxea, Node eta Dab taldeen *Nun batu dira gure ahotsak?* dantza ikuskizunaren emanaldia egin zuten urriaren 27an kultur etxeko auditorioan. Euskal Herriko hiru konpainien beste hainbeste piezarekin osatua, batutako hiru ahots dira. Denboran bidaia da, izandakoa, garena eta izango garena lotzen dituen testuinguru bakarrean, soinu eta mugimenduaren bidez.

Arima galduek hartu dute herria

Gau Beltza eta Halloween ospatu zituzten Lasarte-Orian urriaren 31n. Aurpegiak margotuz eman zioten hasiera Gau Beltzari Zabaletako bizilagunek, eta ibilbide beldurgarriak egin zituzten gero. Auzoa erabat ilunduta, auzotar zein herritar ugari bildu ziren Basotxo plazan eta inguruan.

Udalak eta Sasoeta Sasoian auzo elkarteak aurrera eraman zuten Halloween festa. Giroan sartze aldera, ume ugari margotu zituzten aurpegiak horretarako jarritako postuan, zauri beldurgarri eta guzti. Horren ostean, izuaren ibilbidea eta San Marcial plazako hilerrian barrena ibili ziren.



Aurpegiak margotuta, prest agertu ziren haur eta heldu asko beldurrezko ibilbideari ekiteko. TXINTXARRI



Ume ugari margotu zituzten aurpegiak Sasoetako Halloween festan, gero San Marcial plazako hilerria joateko. TXINTXARRI



Bilbora joateko deia egin dute

Lasarte-Oriako 60 bat eragile eta herritarrek bat egin dute Kontseiluak bihar (hilak 4) Bilbon deitutako manifestazioarekin. 17:00etan abiatuko da ekintza, Euskalduna Jauregitik.

Bertara joateko autobusa antolatu du Boroblean Elkarteak; txartelek 12 euro balio dute. Izen ematea 689 71 90 36 telefonoan egin behar dute herritarrek.



TXINTXARRI



NEURE KABUZ
GORKA ALVAREZ

Nahikoa da

Urteetan aurrera goazen neurrian, hainbat gaiekiko sentsibilizazio mailek ere gora edo behera egiten omen dute. Gehienetan, ia beti, kontraesankorra den gizakiaren aldaratearen edota interesen arabera. Gertuan gertatzen zaigunak, askotan bost axola digu eta urrunekoa-rekiko kezka, ardura eta enpatia itzela izaten dugu lantzean behin. Batzuetan, askotan, gehiegitan, oso maiz ordea, gertukoa bakarrik axola zaigu, urrunekoa telebistako telesail baten modura kontsumitzen dugun bitartean. Interesen baitan, aldaratearen baitan, sentitze-ko, hausnartzeko, ekintzetara jotzeko dauzkagun gogoen baitan izango gara ekintzaile edo tabernako iritzi emaile. Horrela bizi gara lehen mundutzat daukagun gizarte eroso honetan; burua burko gainean jarri eta iritzia emateko prest denok; ni neu barne.


Oso bortitza izaten ari da azkenaldian Palestina aldean gertatzen ari dena. Aurretiaz Ukraina eta Errusiarena izan genituen lehen planoan. Orain modaz pasa den jostailu bat bihurtu da azken hau, berri zahar bat, zaharrak berri esaerari ihes egiten dion albiste urruna lez. Bakoitzak izan ditzakeen iritzi eta sentimenduetatik haratago, gai hauek jorrazteko, ulertzeko eta bereziki kontsumitzeko daukagun hoztasunak kezkatzen nau. Gertu bizi izan ditugu armak gure herrian. Egoera latzak bizi izan ditugu azken hamarkadetan Europa zaharrea ere. Nolabaiteko gure ingurune informatiboan armak naturalizatuta izan ditugun generazioa izan gara. Etxekoetaz gain, Balkanetakoak, Irakekoak, Txetxeniakoak, Eritrea eta Etiopia-koak, Kongokoak etab. luze batek, eguna joan eguna etorri gure etxeetako soinu eta irudi bilduma eratu dute urteetan zehar gure burmuinetan. Intentsibilizazio kezkarri batetara eraman gaituzten arte. Ohikoa izatera iritsi dira milaka eta milaka hildako gure pantailetan ikusi, irentsi eta tonu beretsuan Hollywoodeko artista baten heriotzaren berri ematera pasatzea. Izan telebistan, irradian edo sare sozial gordinetara iritsi arte. Mugikorreko pantailan hatzarekin behera egitea besterik ez da behar, hanburgesa iragarki bat eta errearen igandeko garaipenaren artean, 30 haur Palestinar hilda ikusteko, berria edo informazioa bera, formatu, idazkera eta irudi aurkezpen berarekin. Beldurgarria.

Kezkarri. Urrunekoa gure egiteko garaia badelakoan nago bereziki gudak, armak, heriotzak, sufrimendua eta azken batean pertsonak tartean daudenean; joko zelai hau ez da gizatiarra. Ezin dugu horrela jarraitu. Genozidioak, gudak eta hilketak jatetxe batean entsalada baten moduan kontsumitzen edota best-seller baten azken orrialdea pasatuko bagenu bezala jokatzeko. Hurrengoa noiz helduko, hurrengoa noiz biziko. Zoritxarrez gaixorik dagoen mundu honen ondorioz, askok eta askok bizi ezingo duten horri bizkar emanda jarraitzen dugu.

NAHIKOA DA.

Giltzei buruz aritu dira

Sarek berriki aurkeztutako Konponbiderako Giltzak dinamika jorratu dute urriko Azken Ostiralean. Pili Kastresanak azaldu duenez, "salbuespen neurriei atea itxi eta euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko ateak irekitzeko asmoz" sortutako tresna da. Egitasmo horretan modu aktiboan parte hartzeko eskatu die bertaratutakoei, ahalik eta gehienengana irits dadin.



TXINTXARRI



TXINTXARRI



CORO MURILLO

Kontzertu batekin amaitu dute

Lasartearra elkarteak bere 50. urteurrenaren ospakizuna biribildu zuen urriaren 28an. Manuel Lekuona Kultur Etxean batu ziren elkarteko bazkideak eta haien lagunak herriko bi taldek, Alboka Abesbatzak eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak, elkarrekin prestatu zuten saioa ikusteko. Ia ordu eta erdiz luzatu zen emanaldiak tarte atsegina pasatzeko aukera eman zien denei.

Alboka Abesbatzak hasi zuen emanaldia, bakarka. Montse Latorrek zuzenduta, *Requiem*, *Durme durme*, *City of stars*, *Baratze bat*, *Bring me little water*, *Silvie* eta *Lau teilatu* abestu zituzten Miren Gabirondo pianistak jotako musikarekin. Jarraian, koruko kideek utzitako lekua Zero

Sette akordeoi orkestrak hartu zuen. Lau pieza jo zituzten: *Kitolis&Kontra jan-zas!*, *Zurekin batera*, *Mozkorri* eta *Akerrak Adarrak Okerrak... Korrontzi*. Akordeoi doinuak txaloekin jarraitu zituzten aretoa bete zuten herritarrek, bereziki, Oskorriren kantuekin osatutako piezan.

Horiek amaituta, Albokako kideak batu zitzaizkien elkarrekin *Xalbadorren heriotzean*, *Txoria txori* eta *Lasartearra* eskaintzeko. Azkenak berriro txaloak eragin zituen eta ikusleetako askok abestu ere egin zuten. Urteurreneko ospakizuna izanda, *Zorionak zuri* kantak ezin zuen hutsik egin. Agurtu aurretik, 50 urte baino gehiagoz Lasartearako kide izan diren bazkideak oholtzara igo ziren talde argazkia egiteko.

Berriro elkartu dira

Caceres probintzian dago Torrecillas de la Tiesa, izen bera duen hiriburutik 70 bat kilometrora. Herri txiki, polit eta abegikorra da hura ezagutzera joaten diren guztientzat. Bertako zenbait biztanlek emigratu egin dute arrazoi desberdinengatik, baina sorterria bihotzean daramate eta ez dute ahazten. Horren adibide, Extremadurako herri horretan jaiotakoek urriaren 28an egin zuten topaketa, Urnietan dagoen Oianume jatebtxean. 144 pertsona elkartu ziren. Coro Murillo da antolatzaileetako bat eta TXINTXARRI-ri kontatu dionez, ederki pasa zuten eta Oianume jatebtxekoek emandako zerbitzua "oso ona" izan zen. Menua, hauxe: onddo nahaskia, itsaski budina, etxeko foiea, legatza eta arkumea.

Lehenengo topaketa 1995ean egin zuten, Araeta jatebtxean. Geroztik, urtero-urtero jarri zuten hitzordua 2019ra arte, pandemiaren aurreko urtera arte. Aurten berreskuratu dute usadioa eta mantentzea dute helburu. "Gure gurasoak hasi ziren, orain gu ari gara eta seme-alabek jarraitzea nahi dugu".

KONTZERTUA **Gari&Maldanbera**

azarook 10, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi

ANTZERKIA **Kanpora sartzen**

azarook 11, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi

KONTAKIZUNA ETA TERTULIA **Usurbil borobil erriean dabil**

azarook 12, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

noaua



Usurbilgo Udala



Sarrerak: aldeztu aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman.

Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan.

NOAUA!KO KULTURALDIA 2023 USURBIL AZAROA



Ederki borrokatutako garaipena lortu du Ostadarrek

Euskal Ligako II. mailako Ostadarrek bosgarren seta jokatu behar izan du Universidad de Navarraren aurka

Txintxarri

Neurketa luzea eta gogorra jokatu behar izan zuen Ostadar SKTko Euskal Ligako II. mailako taldeak Universidad de Navarraren aurka urriaren 28an. Tanto luzeak eta lehiatuak ikusi zituzten boleibol zaletuek Maialen Chourraut kiroldegian. Bi orduko jokoaren ostean, bosgarren setean erabaki zen garailea

Lehen seta borrokatuz eskuratu (27-25) ostean, etxeko taldeak bere joko erritmoan beharakada bat izan zuen eta Iruñeko taldeak



Primeran aritu zen Ostadar. TXINTXARRI

ongi baliatu zuen neurketa bere alde jartzeko (13-25 eta 18-25). Laugarren setean, Asier Acuriolaren jokalariek ez zuen amore eman eta partida berdindu zuten

(27-25). Azken seta erabakigarria izan zen. Etxeko taldeak ez zuen huts egin. Ederki aritu ziren urdin-beltzak eta 15-8 irabazi zuten norgehiagoka eskuratuz.

Asier Acuriola entrenatzailea pozarren dago egindako lanarekin. Aurten jokalariai gogotsu ikusten ditu eta partidak lehiatzeko prestatuago dagoela uste du talde urdin-beltzeko prestatzaileak: "Helburua urtero taldearen maila ontzea da eta neurketetan lehiakorrek izatea".

Eta ligako maila pixkanaka igotzen doala adierazi du: "Nahiz eta oraindik talde batzuekin ez dugun lehiatzeko aukerarik izan, iazko maila mantendu edo pixka bat igo dela esango nuke". Baina neurketaz neurketa joan beharko da; oraingoz bi jardunaldietan garaipena erdietsi du Ostadarreko taldeak.



LOKE JUDO

LOKEko judokak, ederki lehian

LOKEko Asier Sagasti eta Haritz Urdangarin judokak hitzordu garrantzitsuak izan zituzten urriaren 28an eta 29an. Sagastik Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuen 100 kilo baino gutxiagoko mailan eta garaile izan zen. Urdangarinek, aldiz, A mailako Espainiako Kopako hitzordua izan zuen Getafe, Madril eta 81 kilo azpiko kategorian zazpigarren sailkatu zen sei borrokatatik lau irabazi ostean.



ESPAINIAKO SURF FEDERAZIOA / G. ÁLVAREZ FERNÁNDEZ

Goenaga, Espainiako txapeldun

Ostadar Inklusio taldeko kide Ander Goenagak Espainiako txapelketa lehiatu zuen urriaren 23tik 29ra, Nigran, Galizian. Patos hondartzan bildu ziren maila ezberdinetako surflariak eta Goenagak Prone 2 mailako garaikurra eskuratu zuen Imanol Sagarzazuren laguntzarekin, baita *wipeout* hoberenaren saria ere.

Texas Lasartearra kadeteen derbian garaile izan da

Ostadar eta Texas Lasartearra taldeek neurketa borrokatua jokatu dute; zuri-urдинek hobeto baliatu dituzte aukerak

Txintxarri

Giro ederra izan zen Michelin kirol gunean urriaren 28an. Lasarte-Oriako Texas Lasartearra FC eta Ostadar SKTren arteko derbia izan zen, oraingoa kadete I. mailako taldeak izan ziren aurrez aurre. Neurketa borrokatuan, zuri-urдинak gailendu ziren 4-1.

Lehen zatian bi taldeak erasoan aritu ziren eta borroka ederra izan zen baloiaren jabetza lortzeko. Aukera ugari izan zituzten herriko bi taldeek baina Texasek baliatu zituen hobekien



Derbiaren irudietako bat. TXINTXARRI

bereak markagailua ireki eta aldea hartzeko. Falta baten aldaratzean sartu zuen lehen gola Gorka Briten taldeak eta bigarrena talde urdin-beltzeko ate-

zainaren gainetik sartu zen jaurtiketa izan zen.

Atsedendialdiaren ostean, Ostadar gogotsu ateratu zen. Xabier Martinezen jokalariai erasoan jokatu eta saria jaso zuten, 2 eta lekoa. Baina 70. minutuan, jokari garrantzitsua galdu zuen talde urdin-beltzak min hartuta eta zuri urdinak berriro neurketaren kontrola lortu zuten. Hirugarren golak ezustean harrapatu zuen Ostadarreko atezaina eta laugarrenean kórner baten aldeartzean egin zuen Texasek.

Texas Lasartearrako entrenatzaile Gorka Brit pozarren dago lortutako garaipenarekin: "Hiru puntu horiei esker, lehen postuetan mantentzen gara". Horrez gain, bi taldeen arteko kiroltasuna eta Michelinen egon zen giroa ere nabarmendu ditu zuri-urдинen prestatzaileak.

Eguzkiko taldeek denetariko emaitzak izan dituzte

Bina garaipen eta porrot eta berdinketa bat izan dira herriko areto futbol taldeek eskuratutako emaitzak

Txintxarri

Emaitza ezberdinak izan dituzte Eguzki Aretoko Futboleko taldeek Gipuzkoako Ligako jardunaldian. Etxeko neurketetan bi garaipen, berdinketa bat eta porrot bat izan ziren.

Urriaren 27an, II. mailako Eguzki ISU Leihoak taldea ederki borrokatu zen Anoeta FTren aurka eta binakako berdinketarekin amaitu zen neurketa.

Hurrengo egunean, ederki hasi zuen goiza. Bai infantil baita ka-

deteak ere euren partidetan nagusi izan ziren eta 9-1 eta 8-1 garaitu zituzten aurkariak, hurrenez hurren.

Eguna biribiltzeko gazteen neurketa falta zen. Tamalez, Eguzki Bodegas Ayesa taldeko kideak saiatu arren, ezin izan zuten Herrikide gaintu (2-5).

Kanpoan ere ez zuen zorterik izan Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak. Afantxo izan zuen aurrez aurre Pasai Donibaneko kiroldegian eta etxeko taldea 11-3 gailendu zen.

Estilo ezberdinei ederki aurre egin diete alebinek

Buruntzaldea IKTko gaztetxoek denboraldiari hasiera eman zioten urriaren 28an. Alebin Ligako lehen jardunaldia lehiatu zuten Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan. Igeriketa taldeko kideek euren onena eman zuten ikasturteko lehen hitzorduan eta "modu egokian" egin zieten aurre proba ezberdinei, batez ere, lau estiloe-tako banakako 200 metroei.



Lehiaketako momentu bat. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK



Maite eta Manolo

Zorionak!! Ederki ospatu dezazuela zuen ezkontzako urteurrena!! Zuen semearen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkontu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailearekin ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 3




Larunbata, 4



Igandea, 5




Astelehena, 6




Asteartea, 7



Asteazkena, 8



Osteguna, 9



GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|---------------|------------|
| OSTIRALA, 3 | ACHA-ORBEA |
| LARUNBATA, 4 | DE ORUE |
| IGANDEA, 5 | DE ORUE |
| ASTELEHENA, 6 | LASA |
| ASTEARTEA, 7 | GIL |
| ASTEAZKENA, 8 | ACHA-ORBEA |
| OSTEGUNA, 9 | URBISTONDO |

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

OHARRAK

Zatuz txistua jotzera

Txistularia bazara, duzun maila duzula ere, zatuz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen (Oriarte Landaberri eraikinean) bil-tzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

ESKUTITZAK

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 089 380 zenbakira.

LANA

ESKAINZA

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere

egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubieta bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubieta bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdaleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
 Lege Gordailua: SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 3

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Creature* filma proiektatuko du. Sarrerak 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

LARUNBATA 4

LASARTE-ORIA Antzerkia

Helduentzako antzerki obra bat oholtzaratuko du Perigallo Teatro-k: *Cabezas de cartel*. Sarrerak 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 5

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema saioaren barruan, *Abentura erraldoia* filma

proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerak 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema saioaren barruan, *Los asesinos de la luna* filma proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak.

Sarrerak 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 8

LASARTE-ORIA Opera

Opera zaleek hitzordu bikaina izango dute; Georges Bizet konpositorearen *Carmen* obraren bertsio digitala ikusi ahal zaingo dute.

Sarrerak, 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 9



LASARTE-ORIA Bertso Clown

Jalgi Kafe Antzokiak Bertso-Clown saioa antolatuko du. Ane Labaka, Eli Pagola eta Miren Artetxe bertsolariak ariko dira bertsotan, eta Bea Egizabal arduratuko da saioa, umoretik, gidatzeaz.

Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 10



LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu Zurlanketa Elkarteak urtean egindako zurezko lanak erakutsiko ditu. Hilaren 19ra arte izango dute herritarrek hori bisitatzera joateko aukera. Honako egun eta ordutegian bertaratu ahalko dira interesdunak: astelehene ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, eta jai egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Mercero gunea.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Bush Doctors Reggae taldeak kontzertua emango du. Sarrera doan. *Jalgi Kafe Antzokia, 20:00etan.*

LASARTE-ORIA Kontzertua

Sasibil Lirika Elkarteak *Una noche en el teatro de la opera* musika emanaldia aurrera eramango du.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Antzerkia

Logela Multimedia-k *Anbotoko Mari* familia antzerkia oholtzaratuko du. Sarrerak 4 euro balio dute.

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema saioaren barruan, *El osito boom* filma proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerak 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema saioaren barruan, *Sound of freedom* filma proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerak 6 euro balio dute.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar SKT - Elgoibar CD
Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA

Mariño CD - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Ugalde-Ventas, Irunen.

ERREGIONALEN I. MAILA

Ostadar SKT - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENILA

Ostadar SKT - Touring KE
Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT C - Segura Goierri KE B
Igandea. 11:20. Michelin kirol gunean.
Orereta Kafea FC - Ostadar SKT B
Igandea. 10:45. Beraun, Erreterian.
Danena KE C - Texas Lasartearra CF
Igandea. 17:45. Elbarrena, Zizurkilen.

OHOREZKO KADETEA

Vasconia CD B - Ostadar SKT
Igandea. 12:30. Puio, Donostian.

KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT B - Billabona KE B
Larunbata. 14:30. Michelin kirol gunean.
Lazkao KE C - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 10:00. Arizti Handi, Lazkaon.
Kostkas Mariaren Bihotza CD C - Ostadar SKT C
Larunbata. 14:10. Matigoxotegi, Donostian.

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT (neskak)
Igandea. 14:05. Berio, Donostian.

INFANTIL HANDI

Ostadar SKT - Real Sociedad SAD
Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.

INFANTIL TXIKI

Ostadar SKT - Hernani CD
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN I. MAILA

Texas Lasartearra CF - Billabona FKE
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT - Usurbil FT B
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Eguzki AF - Coinbroker Aloña
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Sanpedrotarrak FT - Eguzki ISU Leihoak
Ostirala. 21:15. Pasai Donibane kirol., Pasai.

GAZTEEN MAILA

Erain - Eguzki B. Ayesa
Larunbata. 11:30. Tecnun, Donostian.

KADETE MAILA

Lauburu KE Ibarra A - Eguzki G. Goxua
Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

INFANTIL MAILA

Lauburu KE Ibarra 2011 - Eguzki Bar Escalerilas
Igandea. 10:30. Eskolapioak ik., Tolosan.

SASKIBALOA

I. MAILA

Digitarte Hoops - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Altzako kiroldegia, Donostian.

III. MAILA

Diego Valor Barbershop BKE - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Labegaraieta kiroldegia, Bergaran.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - Aloña Mendi KE
Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - Ikerra Eskoriatza KE
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA

Oiarso SKT Super Amara - Ostadar SKT
Igandea. 11:45. Galtzaraborda kiroldegia, Erreterian.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - Latz Taberna ISB
Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Aldapeta Maria ik. txuriak
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar Urdina - Easo Basket Artikutza
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar Beltza - Añorga KKE Saski
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

Ostadar SKT - Navarvoley A
Larunbata. 17:30. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

CV Gallartaren Ahotsa - Ostadar SKT
Larunbata. 17:00. Dolores Ibaruri BHI,
Abanto-Zierbana, Bizkaian.

JUBENIL-SENIOR MAILA

Hernani KKE 2 - Ostadar SKT (S)
Larunbata. 16:00. Hernaniko kiroldegia.
Harresi 1 - Ostadar SKT

Igandea. 11:30. Hondartza kirol., Hondarribian.

KADETE MAILA

Ostadar SKT - Udarregi
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL MAILA

Ostadar SKT B - Aldapeta Maria
Txuri urdin
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

ESKUZ BANAKA, 3. SENIORRA
Zazpi Iturri 2 - Intza KE

Ostirala. 19:15. (1. partida) Larrunari pil.,
Amezketan.

ESKUZ BANAKA, 1. INFANTILA

Intza KE (Garmendia) - Zazpi Iturri
Igandea. 11:00 (1. partida). Michelin kirol guneko
pilotalekuan.

ESKUZ BANAKA, 2. INFANTILA

Mundarro - Intza KE (Iparragirre)

Ostirala. 17:30 (4. partida). Udaleko pil.,
Astigarragan.

Intxurre - Intza KE (Maiz)

Ostirala. 18:00 (6. partida). Flori, Alegin.
Intza KE (Lopez) - Tolosa

Igandea. 11:00 (3. partida). Michelin kirol guneko pil.

ESKUZ BANAKA, 3. INFANTILA

Intza KE (Lizarraga) - Alde Zaharra
Igandea. 11:00 (2. partida). Michelin kirol guneko pil.

GOMAZKO PALA, 3. SENIORRA

Beotibar 5 - Intza KE
Larunbata. 09:00. (1. partida) Alkartasuna pil.,
Anoetan.

ERRUGBIA

14 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak RT taldeko
gaztetxoek topaketa dute.
Larunbata. 10:30. Landare, Hernanin.

ATLETISMOA

DONOSTIAKO KROSA

Ostadar SKTko zein herriko hainbat
korrikalarik Donostiako LXVII
Nazioarteko Krosean parte hartuko
dute.

Igandea. 09:25. Hipodromoa, Donostian.

XAKEA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Juan Rodriguez eta Taulako kide
Jose Ignacio Echeberria herritarrek
Superbeterano mailako Gipuzkoako
txapelketako laugarren jardunaldia
jokatuko dute.
Igandea. 10:30. Erreterian.



INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

aldizkariak
IRUDI KORPORATIBOA

kartelak
ESKU-ORRIAK

katalogoak
AGENDAK EGUTEGIAK

koadernoak
PAPELERIA
liburuak

antza

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




errigora
errigora.eus

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

**10 urte
bete-bete**

urriak 20 - azaroak 9

Saski bakoitzaren balioaren %25 euskalgintzara bideratzen da

50€



Eskatu saskia!

Maitete B ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**

